

Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea

Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea edozein pertsona fisiko edo juridikok, bai norbanako gisa eta bere izenean, bai bildu edo ordezkatzan dituzten legez eraturako erakundeen ordezkari gisa eta horien izenean, informazio publikoa eskuratzeko duen eskubidea da, Legean ezarritako mugekin eta eskaerarako arrazoiak eman beharrik gabe.

Informazio publikotzat ulertzen da Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen mendeko subjektuen esku dauden eta horien funtzioak betez egin edo eskuratu diren edukiak edo dokumentuak, edozein delarik horien formatua edo euskarria.

Informaziorako sarbidea, oro har, doakoa izango da eta, ahal den guztietan, eskatutako moduan edo formatuan jarriko da eskura..

Zer da informazio publikoa?

Gardentasunari buruzko Foru Legeko 4. artikulua arabera, informazio publikoa hau da: Edozein direlarik bere euskarria eta adierazpidea, foru-lege honek aipaturiko administrazio publikoek sortzen duten edo daukaten informazioa.

Halaber, informazio publikotzat jotzen da zerbitzu publikoek ematen dituzten edo ahalmen administratiboak edo funtzio publikoak dituzten beste erakunde edo subjektu batzuek sortutakoa edo horien jabetzakoa den informazioa ere, baldin eta jarduera publiko bat gauzatzean lortu bada.

Informazio horren zati handi bat argitaratuta dago webgune honetan eta Gobernu Irekiaren Atarian. Aurkitzen ez baduzu, **laguntza eska dezakezu** bilatzeko eta/edo informazio publikoa eskuratzeko eskaera formalizatzeko.

Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea ez da unibertuala eta lotuta dago Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeko 14. artikuluan eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeko 31. artikuluan ezarritako mugei.

Organo eskuduna

Informazio publikoa eskuratzeko eskaerei buruz ebazteko organo eskuduna Gardentasun Atariaren arduradun izendatutako pertsona da (udala@lesaka.eus).

Epeak

Oro har, informazio publikoaren eskaerari dagokion erregistroan sartutako datatik **hilabete igaro baino lehen** erantzun behariko zaio.

Epe hori beste hilabetez luzatu ahal izango da, baldin eta, informazioaren bolumena eta konplexutasuna dela eta, aipaturiko epea baino lehen igorri ezin bada. Kasu horretan eskatzaileari jakinarazi behar zaizkio, hamar egun igaro baino lehen, ebazpena epe horretan igortzea justifikatzen duten arrazoiak.

Mugak

Informazioa eskuratzeko eskubideak Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeko 31. artikuluan jasotako zenbait muga izango ditu, hauetarako kaltegarria bada:

- Segurtasun publikoa.
- Erabakiak hartzeko prozesuetan eskatzen den konfidentziasunaren edo sekretuaren bermea.
- Legez kanpoko penal, administratibo edo diziplinazkoen prebentzioa, ikerketa eta zehapena.
- Alderdien berdintasuna prozesu judizialetan eta benetako babes judiziala.
- Zaintza-, ikuskapen- eta kontrol-funtzio administratiboak.
- Ekonomia- eta merkataritza-interes legitimoak, foru-lege honen arabera hitzarmen, kontratu eta beste ekintza administratibo batzuen publikitatearen kalterik gabe.
- Sekretu profesionala eta jabetza intelektuala eta industrialak.
- Ingurumenaren babesa.
- Lege-mailako arauak gordetako edo babestutako jotako informazioa.
- Muga horien aplikazioa, dena den, neurrikoa izango da bere xedearen eta bere babes-xedearen arabera, eta modu zorrotz eta justifikatua interpretatu beharko da.

Muga horiek legeek zehaztutako denboran edo justifikatzen dituen arrazoiak irauten duen bitartean soilik aplikatu ahal izango dira.

Ez onartzeko arrazoiak

Ez dira izapidetzeko onartuko, arrazoituta ebazpen bidez, honako eskaera hauek:

- Legeak eskuratzeko eskubidetik kanpo uzten duen informazioari buruzkoak.
- Zuzentzen zaion erakundearen eskuetan ez dagoen eta eskuduna ezezaguna den informazioari buruzkoak.
- Kontsulta juridikoei erantzuteko eskaerekin edo txostenak edo xedapenak egiteko eskaerekin bat datozenak.
- Neurri kanpotzat jotzen direnak euren izaera zentzugabeagatik eta errepikakorragatik edo eskubidea neurri kanpo erabiltzen dutelako.
- Prestatzeko dokumentazioari, egiten ari den materialari edo datu amaigabeei buruzkoak badira eta espediente administratiboaren parte ez badira.
 - Bukatu gabeak: Oraindik baretik lantzen ari direnak eta xedapen, txosten edo onepenen ez dutenak.
 - Kasu horretan, ebazpena emateko organo eskudunak hura amaitzeko aurreikusitako denborari buruz informatu beharko du eskatzailea.
- Izaera laguntzailea edo babesekoa duen informazioari buruzkoak, esaterako:
- Oharrak, zirriborroak, iritziak, barne-erabilerako laburpenak edo garrantzi edo interes publikorik ez duten barne-jakinazpenak.
- Ez dira onartuko jotzen espedientearen parte diren edo ebazpenekin eta beste ekintza administratibo batzuekin zerikusirik ez duten txosten juridiko, tekniko, ekonomiko eta beste gisa batekoak.
- Hedatu ahal izateko berregiteko alde aurretiko ekintza behar duen informazioari buruzkoak.
- Ez da berregitetzat jotzen erabilera arrunteko tratamendu informatizatua baten bitartez lor daitekeen informazioa, ez eta hainbat dokumentutan sakabanatutako informazioa bildu nahi duen ekintza ere.

Informazio publikoaren eskaerak

[Eskarea bat tramitatzea.](#)

Informazio Publikoaren Unitate Arduraduna

Herritarren informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gauzatzeko xedez, erakunde honek Informazio Publikoaren Unitate Arduraduna (IPUA) izendatu du, 5/2018 Foru Legean ezarritako betebeharrak denboran eta forman izapidetzeaz arduratzen dena. IPUA komunikazio-funtzioa da, eta udala@lesaka.eus helbidearen 948 63 70 05 telefonoaren bidez jar zaitezke harremanetan harekin.